
LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES



JARDUEREN MEMORIA

2025

AURKIBIDEA

AURKEZPENA

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA
2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA
3. KONTSULTA-JARDUERA
4. ERAKUNDEAREN JARDUERA
5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA
6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ
7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK
8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE
9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK
10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

AURKEZPENA

Lan Harremanen Kontseiluaren 2025eko Jardueren Memoria da hau. Beti bezala, modu konpromituan biltzen saiatzen da hilabetez hilabete eta urtez urte egiten den lana, lan-harremanak, autonomia kolektiboa eta erakunde sindikalen eta enpresa-erakundeen arteko elkarrizketa erraztu eta sendotzeko.

Lan Harremanen Kontseiluaren jarduera, oparoa eta etengabea, berrikuntza nabarmenik gabe mantendu da. Simpsondarrek eskaintzen digutenaren antzeko ikuspegia du (distantziak gordez) denboraren joanari buruz: Bart-ek adin bera du beti, Springfieldeko tramak errepikatu egiten dira, gai asko ere bai... Baina unean-unean gertatzen diren ustekabeko gertaera horiek ematen diote gaurkotasuna eta interesa telesailari. Gauza askorekin gertatzen da: azken urtea neurtu dezakegu titular, denbora eta eztabaidetan lekua izan duten mugari handien arabera, edo neurtu dezakegu, bilbe berritzailek gabe, baina benetan fruituak ematen dituenaren arabera.

Ildo horretan, 2025a gai nabarmenez betetako urtea izan da. Hemerotekara bisita azkarra eginda,

apirilaren 28an Espainiar Estatuak bizi izan zuen itzalaldi dramatikoa topatuko dugu, edo lanaldia 37,5 ordura murrizteko ahalegina, edo, gure eremutik hurrago, gutxieneko soldata edo ordainsari bati buruzko lanbide arteko akordio bat lortzeko negoziazio-mahai bat eratzeko ahalegina –proposamen desberdinekin–, tentsio geopolitikoak eta horiek ekonomietan duten eragina alde batera utzi gabe. Baina gizarte-eragileek egindako lanari esker daukate, urtea amaitzean, EAeko soldatapekoen %63,8k hitzarmenak eguneratuta, eta %31,7k luzapen-egorran, eta soilik %4,5ek, berriz, iraungita.

Datu hauek azken urteotako onenetakoak dira, nahiz eta lerro hauek idazteko unean tentu handiz hartu beharreko erronka berriak aurkeztu: 2026ak aurre egin behar die Irango gerraren ondorio geopolitikoei, azken urteotako gainerako tentsioei gehitzen zaizkienak, eta, aldi berean, gure eremuan langile asko eta askori eragiten dieten hitzarmen kolektibo batzuen negoziazio-prozesuei aurre egin beharko die urte honek.

Maila pertsonalago batean, ezin dut aurkezpen hau amaitu gure egoitzetara bertaratzen diren eta

negoziazio kolektiboa errazteko eragile gisa funtsezko zeregina betetzen duten pertsonen eta erakundeen lana aitortu gabe, beren lanarekin negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzen laguntzen baitute.

Beti bezala, eskerrak eman behar dizkiet Lan Harremanen Kontseiluko langileei, haien profesionaltasunagatik eta dedikazioagatik. Eta bereziki Yolanda Zarandonari, duela gutxi arte idazkari nagusi izan denari. Erakundeen lana etengabe zalan-tzan jartzen den honetan, egiten duen lana aitortu behar zaio zerbitzu publikoa emateko bokazioarekin kalitate instituzionala indartzen duen horri.

Emilia M. Málaga Pérez
Presidentea

1. BARNE-ANTOLAKETA ETA OSAERA

Lan Harremanen Kontseilua Euskal Autonomia Erkidegoaren organo bat da, eta irailaren 30eko 9/1981 Legearen bitartez sortu zen; nolahi ere, Lan Harremanen Kontseiluaren egungo erregulazioa ekainaren 23ko 4/2012 Legean jasota dago. Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren gai soziorabolarako kontsulta erakundea da, eta, hori ez ezik, sindikatuen eta enpresaburu konfederazioen arteko topaketa eta elkarrizketarako organo iraunkorra ere bada (ikus horri buruzko informazio gehiago Kontseiluaren webgunearen **OSAERA** atalean).

Kontseilua bitariko erakunde parekidea da, sindikatu-erakunde eta konfederazioen ordezkari gisa diharduten zazpi kidez osatua, eta enpresa-konfederazioen ordezkari gisa diharduten beste zazpi kidez.

2025ean, Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko berritzea egin da, zehazki 2025eko abenduaren 1ean amaitu dena. Egun horretan, Lan Harremanen Kontseiluko kideak kargutik kendu eta beste batzuk izendatzeko Lehendakariaren azaroaren 18ko 22/2025 Dekretuak eragina izan du. Horren ondorioz, gaur egun Euskal Enpresarien Konfederazioak (CONFEBASK) izendatutako zazpi kide efektibok eta CCOO, LAB eta UGT sindikatuek izendatutako zazpi kide efektibok osatzen dute LHK (ikus horri buruzko informazio gehiago Lan

Harremanen Kontseiluaren webgunearen **OSAERA** atalean). Kontseiluko presidentea eta idazkari nagusia ere LHKko kide dira, baina ez dute botoa emateko eskubiderik.

LAN HARREMANEN KONTSEILUKO LANGILEAK

2025. urtean, Lan Harremanen Kontseiluak honako langile publiko hauek izan zituen: azterlan sozioekonomikoen arduradun bat, lan-harremantako bi teknikari, administrazio-arloko buru bat, hizkuntza-normalkuntzako teknikari bat, negoziazio kolektiboaren arloko teknikari bat, arloko sei administrari eta laguntzaile orokor bat. Gainera, behin-behineko langile gisa, Precoren prozedurak kudeatzeko eta negoziazio kolektiboari laguntzeko hiru lurralde-arduradun daude Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

2. OSOKO BILKURAREN ETA BATZORDEEN JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluaren ohiko funtzionamendua Osoko Bilkuraren eta haren baitako lan-batzordeen bitartez bideratzen da. Bada, 2025ean organo horien funtzionamendua honakoa izan da:

LAN HARREMANEN KONTSEILUAREN OSOKO BILKURA: 2025ean, Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak lau bilera egin zituen, eta, horietan, behar den bezala funtzionatzeko beharrezko erabakiak hartu ziren:

Ohikoa: martxoaren 5ean.

- 2024ko Aurrekontuaren behin-behineko likidazioa onartzea.
- Osoko Bilkuraren aurretiazko adostasuna, Gipuzkoako Preco kudeatzeko lurralde-arduradunaren kargu-uzteari eta izendapenari dagokionez, bai eta Donostiako Lan Harremanen Arloko administrari eta laguntzaile orokorreko lanpostuetarako bitarteko funtzionarioen izendapenari dagokionez ere.
- Formakuntza-saioak antolatzeke proposamena.
- Arizmendiarieta Fundazioaren proposamena «*Enpresa Eredu Inklusibo Parte-hartzailea*» izeneko dokumentua aurkezteko.

Ezohikoa: apirilaren 29an.

- 2024 ekitaldiko urteko kontuak onartzea.

Ohikoa: maiatzaren 26an.

- 2024. urteko txosten soziolaboralaren proiektua onartzea.
- 2024ko memoria-proiektua onartzea, hala badagokio.
- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa, 2025eko martxoaren 31n.
- Enpresetan berdintasun-batzordeei laguntza eta babesa emateko proiektu pilotu bat abian jartze-

ko Emakunderekin sinatutako lankidetzahitzar-menaren amaiera iragartzeko baimena.

Ohikoa: abenduaren 22an.

- Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkura formalki eratzea, bertako kideak berritzeko prozesua behin amaitu ondoren.
- Kideak hautatzea eta izendatzea Lan Harremanen Kontseiluaren batzorde iraunkorretarako: Prestaketakoa eta Txostenena.
- Aurrekontu Proiektua onartzea 2026 urterako, hala badagokio.
- Aurrekontua betetzeari buruzko informazioa 2025eko irailaren 30eko datan.

PRESTAKETA BATZORDEA: Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkuraren ohiko bileretan aztertu beharreko gaiak prestatu eta gai-zerrenda onartzeaz arduratzen da. Eta 2025ean hirutan bildu zen: otsailaren 26an, maiatzaren 19an eta abenduaren 15ean.

TXOSTENEN BATZORDEA: Txostenen Batzordeak Osoko Bilkuraren batzorde eskuordetu gisa jarduten du Lan Harremanen Kontseiluaren kontsulta-eginkizunaren garapenean, otsailaren 23ko 4/2012 Legearen 3.a), b) eta c) artikuluan ezarritako baldintzetan.

3. KONTSULTA-JARDUERA

Lan Harremanen Kontseiluak duen kontsulta egin-kizuna garatzeko organo delegatua Txostenen Batzordea da, hala ezartzen baita Lan Harremanen Kontseiluaren funtzionamenduaren Araudian, zeina Osoko Bilkuraren 2014ko urtarrilaren 7ko Akordioaren bidez onartu baitzen.

Batzordeko kide gehienak iritzi berekoak direnean, Lan Harremanen Kontseiluak irizpen bat ematen du. Bestela, iritzi desberdinak daudenean eta adostasunik lortu ezin denean, Batzordeko kideen iritzi desberdinak zehazten dituen txosten bat egiten da.

2025. urtean, Txostenen Batzordeak Eusko Jaur-laritzak bidalitako txosten-eskaera baten edukia-
ren berri eman du, Euskal Autonomia Erkidegoko
2026. urterako Jaiegunen Egutegi Ofiziala onar-
tzen duen Dekretu-proiektuari buruzkoa.

Emandako txosten eta irizpen guztien testu osoa
LHKren webgunean kontsulta daiteke, **KONTSULTA-
JARDUERA** atalean.

4. ERAKUNDEAREN JARDUERA

Komunikabideetan eginiko agerraldi batzuez gain, hauek izan dira Lan Harremanen Kontseiluaren jarduera instituzionalaren ekitaldi nabarmenenak 2025. urtean:

Apirilaren 11n, Lan Harremanen Kontseiluak EHUKo Giza Baliabideen Kudeaketa Masterreko ikasleen bisita hartu zuen bere egoitzan

Maiatzaren 6an, presidenteak Gaztela eta Leongo «Servicio Regional de Relaciones Laborales (SERCLA)» delakoaren hogeita bosgarren urteurrena ospatzeko antolatutako jardunaldian parte hartu zuen, Valladoliden.

Maiatzaren 14an, presidentea CEBEKEN Batzar Nagusian izan zen, Bilbon.

Maiatzaren 15ean, presidentea Euskadiko CCOO-ren hamahirugarren biltzarrean izan zen, Gasteizen.

Maiatzaren 29an, presidentea Adegiren Enpresaren Egunean izan zen, Donostian.

Ekainaren 2an, presidenteak «*El reto de la vivienda. Construyendo soluciones desde un enfoque multidimensional*» delako jardunaldian parte hartu zuen. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.

Ekainaren 6an, presidentea eta idazkari Nagusia SEAREN Batzar Nagusian izan ziren, Gasteizen.

Ekainaren 11n eta 12an, presidenteak eta idazkari nagusiak lan-bitartekaritzako erakundeen topaketa batean parte hartu zuten, Santiagon.

Uztailaren 10ean, LHK-ko presidenteak «*2024ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremani buruzko txostena*» aurkeztu zuen Bilboko egoitzan komunikabideen aurrean emandako prentsaurrekoan.

Irailaren 17an, presidenteak Soldata Arrakalari buruzko Nazioarteko IV. Kongresuan parte hartu zuen, Bilbon.

Urriaren 6an, presidenteak «*Por un liderazgo empresarial equilibrado de género*» delako jardunaldian parte hartu zuen. Confedebak antolatu zuen jardunaldia, Bilbon.

Urriaren 29an, «*Un empleo diverso en una sociedad próspera y cohesionada*» izeneko VIII. Enplegu Biltzarrean izan zen presidentea, Donostian.

Urriaren 31n, presidenteak «*Empleo de calidad e IA*» delako jardunaldian parte hartu zuen, Bilbon.

Abenduaren 12an, idazkari nagusia Auzitegi Nazionaleko Lan Arloko Salaren eta SIMA-FSP Fundazioaren arteko bitartekaritza intrajudizialaren jarduera-protokoloa sinatzera joan zen, Madrilera.

5. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA KONTSEILUAREN FORMAKUNTZA-PLANA

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA

Duela sei urte, 2019ko ekitaldiaren amaieran, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa onartu zen. Plan hori Eusko Jaurlaritzaren 2018-2022 aldirako Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. Plangintzaldiaren barruan sartzen zen, eta aldi horretarako Lan Harremanen Kontseiluarren Plan Estrategikoa garatzea izan zen helburua.

Ondoren, 2024an, Lan Harremanen Kontseiluarren 2024-2027 aldirako Euskararen Erabilerarako Plan Estrategiko berria egin zen, VII. Plangintzaldi ofizialaren barruan eta Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuarekin bat, eta, lehenengoz, KEMEN adierazle-sistema oinarri hartuta. Bada, 2025. urtean plan horren lehen Kudeaketa Plana garatu da.

LHKren Hizkuntza Irizpideen dokumentua berritu da aurten, EAEko bi hizkuntza ofizialen erabilerarako jarraibideak aintzat hartuta. Lan Harremanen Kontseiluarren erabilera-planetan gauzatuko dira irizpideok.

Euskara Batzordeak, zeina 2020an sortu baitzen egun duen izaerarekin euskararen erabilera normalizatzeko, zortzi bilera egin ditu 2025ean.

2025EKO EKITALDIKO NEURRI NAGUSIAK

Neurketak

—Urte osoan zehar, hizkuntza ofizialen erabileraren neurketa egin da, bai *aplikatu beharreko hitzarmenari buruzko kontsultetan*, bai Lan Harremanen Kontseiluko langileek barruko komunikazioetarako erabiltzen dituzten *idatzizko mezu orokorretan*.

Jendaurreko ekitaldiak

—Euskara presente egon da uztailaren 10ean «2024ko EAEko egoera ekonomikoari eta lan-harremanei buruzko txostena» aurkezteko Bilboko egoitzan egindako prentsaurrekoan.

BAGABILTZA buletina

—BAGABILTZA izeneko buletinaren 4 zenbaki argitaratu dira 2025ean, hurrenez hurren urtarrilean, maiatzean, urrian eta abenduan.

EUSKARALDIA

—Aurreko ekitaldi guztietan egin duen bezala, Lan Harremanen Kontseiluak EUSKARALDIAn parte hartu du.

Ekimenaren baitan, 2025eko maiatzaren 16an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko eta Lan Harremanen Kontseiluko langileek topaketa bateratu bat egin zuten LHKren egoitzan.

Euskararen Nazioarteko Eguna

—**Abenduaren 3an** Nazioarteko Euskararen Eguna ospatu zen, eta, horren harira, zenbait ekimen antolatu ziren erakunde barruan.

LHK-REN FORMAKUNTZA-PLANA

2020 urtean formakuntza-beharren diagnostikoa egin zen eta «LHK-ko langileentzako formakuntza-plana» diseinatu zen. Formakuntzarako plan hori Lan Harremanen Kontseiluko langile guztiek koordinatutako hausnarketaren emaitza izan da, eta garatzen dituzten gaitasunen arabera hartzaile espezifikoak dituzten eremuak biltzen ditu.

6. LAN-HARREMANEN ZERBITZU INTEGRAL BATERANTZ

BATZORDE PARITARIOEI ETA HITZARMEN KOLEKTIBOAK NEGOZIATZEN DITUZTEN BATZORDEEI EMANDAKO ZERBITZUAK

2009an, plan bat onartu zen, Lan Harremanen Kontseilua lan-harremanen zerbitzu integral gisa finkatzeko asmoz, negoziazio kolektiboa ahalik eta modu gehienetan egin zedin (negoziazio-batzordeak eta paritarioak). LHKren oinarritzko egin-kizunetako bat da, bere lege erregulatzailaren arabera, eta hori betetzea funtsezko faktorea da negoziazioan oinarritutako lan-harremanen sistema finkatzeko, Zuzenbide Estatu demokratiko batekin bat datorren aldetik.

Data horretatik aurrera, aurrera egin da prozesu horretan, eta lankidetzaz eskaini zaie sektoreko hitzarmen kolektiboak negoziatzen dituzten batzordeei eta horietako bakoitzak sortu behar duen batzorde paritarioari. Lankidetzaz horrek hainbat laguntza-maila biltzen ditu: batzordea bera helbidetatzea, lokalak bileretarako erabiltzea, batzorde paritarioei zuzentzen zaizkien eskaerak jaso eta tramitatzea, eta Kontseiluko teknikariek edo, batzuetan, Precoko zerrendetako profesionalak parte hartzea. Azken hauek moderatzaile, aholkulari eta akta-idazkari gisa jardungo dute, hitzarmenen negoziazioa sustatzen lagunduko dute, batzordeak eratzeko prozesuan, hitzarmen kolektiboak izenpetzen, paritarioen akordioak gauzatzen... eta aurkezpen telematikoa egingo dute Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan (Regcon).

Lan-harremanen sistemak modu eraginkorrean funtziona dezan, pentsatu behar da negoziazio kolektiboa gertaera ez-zirkunstantziala dela, denboran zehar luzatzen dena, intentsitate desberdinarekin, hitzarmena negoziatzeko edo abian jartzeko unearan arabera. Horregatik, negoziazio-batzordeei eta batzorde paritarioei laguntzeko programa LHKren funtsezko helburu bihurtu da.

Aurreko paragrafoetan aipatzen diren zerbitzuak sektoreko, probintziako edo autonomia-erkidegoko hitzarmen kolektiboetako batzordeei eskaintzen zaizkie. Ez da gauza bera gertatzen enpresa-hitzarmenei dagokienez, gero eta gehiago direlako eta Lan Harremanen Kontseiluaren giza baliabideak eta azpiegiturak mugatuta daudelako. Hala ere, eta erakundearen ahalmenen barruan, Lan Harremanen Kontseiluaren egoitzen erabilera eskaintzen zaie negoziazioaren garapenerako, aholkularitza eta laguntza emateko negoziazio-batzordea eratzean eta negoziazioaren amaieran. Eratze-bilkura eta azken bilkura moderatzen dira, eta dagozkion aktak egi-

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	ORGANO NAGUSIA	GUZTIRA
HITZARMEN EDO AKORDIO KOLEKTIBOAK	6	5	2	1	14
SOLDATA-BERRIKUSPENA	3	0	17	0	20
AURRERAERAGINA ZABALTZEA	0	0	0	0	0
HITZARMENA ALDATZEA	3	0	0	0	3
BATZORDE PARITARIOAREN ERAB. / ARBITRAJE-LAUDOA	0	5	0	3	8
NEGOZIAZIOA HASTEA ETA SALAKETAK	6	0	3	0	9
EZ APLIKATZEKO AKORDIOAK	0	0	0	0	0
HITZARMENAREN ONDORIOZKO AKORDIOAK	0	2	1	1	4
LAN-EGUTEGIA	1	1	0	0	2
GUZTIRA	19	13	23	5	60

**2025EAN
ERREGISTRATU ETA
ARGITARATZEKO
AURKEZTUTAKO
HITZARMEN
ETA AKORDIO
KOLEKTIBOAK,
SEKTOREKOAK EDO
LANBIDE ARTEKOAK**

ten dira; ondoren, ateratzen den hitzarmena Lan Agintaritzari aurkezten zaio, hitzarmen kolektiboen erregistro telematikoaren bidez, bai hitzarmen hori LHKren egoitzetan negoziatu denean, bai, LHKtik kanpoko egoitza batean negoziatu ondoren, alderdiek laguntza tekniko hori behar dutenean erregistratu eta argitaratzeko. Bada, 2025. urtean guztira 41 inskripzio- edo gordailu-eskaera tramitatu ditu LHKk Hitzarmen eta Akordio Kolektiboen Erregistroan, enpresa-arloko negoziazio kolektiboaren esparruan.

2025. urtean zehar, 2023an jada COVID pandemiaren ondorioz ezarritako edukiera-muga guztiak desagertu ondoren, presentzialtasuna finkatu da, Lan Harremanen Kontseiluaren lurralde-egoitzetan negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen bilerak egiteko modu ohikoena baita. Hala ere, Lan Harremanen Kontseiluak batzorde horien eskura jarri du bileren formatu presentziala eta mistoa konbinatzeko aukera, hain zuzen ere, parte-hartze telematikoaren eta presentzialaren bidez.

Lan Harremanen Kontseiluak laguntza teknikoa ematen dio ohiko negoziazio-jardueraren garapenari, eta horri buruz emandako informazio publi-

koari dagokionez, Lan Harremanen Kontseiluaren webguneak informazio hori eguneratzeko prozesuarekin jarraitu du (2020an hasi zen). Hala, azken hiru urteetan LHKren laguntza jasotako hitzarmen kolektiboen negoziazio-batzordeen zerrenda sartu da webgune horretan, eta honako hauek zehaztu dira: zein sektoreri dagokion, azken negoziazio-prozesuaren datuak (eraketa-data eta batzordearen azken bilerarena), eta argitalpen ofizialerako estekarekin sinatutako azken hitzarmenaren argitaratze-data; datu horiek guztiak bi hilabeterik behin eguneratu dira. Lan Harremanen Kontseiluan helbideratuta dauden edo laguntza teknikoa jasotzen duten batzorde paritarioei dagokienez, LHKren webgunean jasotako informazioan agertzen da noiz eratu diren eta 2025 urte osoan egin dituzten jarduera-motak.

Ondoren, Lan Harremanen Kontseiluak azken hiru urteetan zerbitzuak eman dizkien negoziazio-batzordeen eta batzorde paritarioen zerrenda aurkezten da. Horietan, asterisko (*) batekin identifikatu dira 2023tik 2025era bitartean hasitako negoziazio-esparru berriak, eta bi asteriskorekin (**), zenbait arrazoi direla medio aurrera egin ez duten negoziazio-esparru berriak, nahiz eta horien

inguruan jardueraren bat egin den aldi horretan, Lan Harremanen Kontseiluaren laguntzarekin.

Lan Harremanen Kontseiluaren hiru egoitzek 2023., 2024. eta 2025. urteetan emandako zerbitzuaren datu bereziki garrantzitsu gisa, azpimarratzekoa da sektore-mailako batzorde paritario espezifikoen jardun izana. Bada, zerbitzu hori jarraian xehatzen den informazioaren barruan zehazten diren sektoreei eta gaiei buruzkoa da.

LAN HARREMANEN KONTSEILUAK AZKEN HIRU URTEETAN HIRU LURRALDE-EGOITZETAN BERE ZERBITZUAK EMAN DIZKIEN SEKTOREKO HITZARMEN KOLEKTIBOEN (EDO ASIMILATUEN) NEGOZIAZIO-BATZORDEEN, BATZORDE PARITARIOEN ETA BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOEN ZERRENTA

ARABA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Desgaitasuna duten pertsoneri arreta emateko zentro eta zerbitzuak
- Egoitza pribatuak *
- Elikagaien merkataritza
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuen emakidadunak
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industria
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zementuaren eratorriak
- Zuraren industria

BATZORDE PARITARIOAK:

- Aisialdiko hezkuntza eta animazio soziokulturala
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Desgaitasuna duten pertsoneri arreta emateko zentro eta zerbitzuak
- Ehungaien merkataritza
- Elikagaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko laguntza-zerbitzua
- Eusko Jaurlaritzaren zentroen garbiketa-zerbitzuen emakidadunak
- Hirugarrenentzako kirol-jarduerak
- Industria siderometalurgikoa
- Ostalaritza
- Salgaien errepide bidezko garraioa, eta garraio-agentziak
- Zementuaren eratorriak
- Zuraren industria

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Esku hartze soziala: Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
- Herri-lanak eta Eraikuntza: Berdintasun-batzordea
- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun-batzordea
- Industria siderometalurgiko profesionala: Lanbideen sailkapena aztertze batzordea
- Zuraren industria: Berdintasun-batzordea

BIZKAIA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Adinekoentzako zentroak
- Autoeskolak
- Arrain-kontserbak eta arrain gazituak
- Arte eszenikoak (EAE) *
- Arte grafikoak
- Artisau-gozogintza eta -pastelgintza
- Bidaiarien errepide bidezko zerbitzu erregularraren eta diskrezionalen garraioa
- Bulego eta despatxuak
- EAEko gaixoen eta istripua izandakoen errepide bidezko garraio sanitarioa anbulantzian
- EAEko gizarte-ekimeneko ikastetxeak
- EAEko ostalaritza (Esparru-akordioa)
- EAEko sukaldaritza kolektiboa *
- Ehungaien merkataritza
- Ekitaldi eta ikuskizunetako teknikariak eta laguntzaileak (EAE) *
- Elikagaien merkataritza
- Enplegu-zentro bereziak (EAE) **
- Eraikin eta lokalen garbiketa
- Eraikuntza
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Esku hartze soziala
- Etxez etxeko banaketa elikagaigintza-sektorean *
- Etxez etxeko laguntza
- Euskara (EAE) **
- Eusko Jaurlaritzako kudeaketa zuzeneko eskola jantokietako kolektiboak
- Farmazia-bulegoak
- Fruta eta barazkien biltegi-jabeena eta bananen biltegi-jabeena
- Gai jakin bateko sukaldaritza kolektiboa **
- Garbiketa-zerbitzuko enpresa emakidadunak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren eta EHUren mendekoak diren zentroetan (EAE)
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Gutxieneko soldata eta hitzarmeneko gutxieneko soldata (EAE) **
- Industria kimikoa (EAE) **
- Industria siderometalurgikoa
- Larruaren eta oinetako en merkataritza
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Tindategiak eta garbitegiak
- Zinema-erakustaldia *
- Errepide bidezko garraioa eta garraioaren jarduera lagungarri eta osagarriak
- Esku hartze soziala
- Eskola-garraioan eta patioan lagun egiteko zerbitzuaren enpresa esleipendunak, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendekoak direnak (EAE)
- Etxez etxeko laguntza
- Industria siderometalurgikoa
- Kolektibitateak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mende dauden zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan (EAE)
- Lokalak eta kirol-zelaiak
- Merkataritza orokorra
- Metalaren merkataritza
- Osakidetzako lokalen garbiketaren enpresa emakidadunak (EAE)
- Ostalaritza
- Petronorreko kontratak: enplegu-egonkortasunerako ituna

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Industria siderometalurgikoa: Berdintasun-batzordea

GIPUZKOA

NEGOZIAZIO-BATZORDEAK:

- Adinekoen egoitzak
- Bide garbiketa publikoa
- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Ehungaien merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Errepide bidezko salgaien garraioa
- Esku hartze soziala
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Industria siderometalurgikoa
- Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industriak
- Ostatuak
- Pasta, paper eta kartoen fabrikazioa
- Pastelen eta gozen industria eta merkataritza
- Salbamendua eta sorospena naturguneetan *
- Titulartasun publikoko kirol-instalazioak
- Trafiko eta Aparkamenduaren Ordenamendua (TAO)
- Zuraren industria *

BATZORDE PARITARIOAK:

- Bidaiarien errepide bidezko garraioa
- Ehungaien merkataritza
- Elikaduraren industria eta merkataritza
- Eraikuntza eta herri-lanak
- Esku hartze soziala
- Garraiolariak
- Gasolina-zerbitzuguneak
- Industria siderometalurgikoa
- Informazioaren eta dokumentazioaren kudeaketa
- Bide garbiketa
- Metalaren merkataritza
- Okindegien industria
- Ostatuak
- Pasta, paper eta kartoen fabrikazioa
- Pastelen eta gozen industria eta merkataritza
- Sukaldaritza-arloko enpresak
- Titulartasun publikoko kirol-instalazioak
- Zuraren industria

BATZORDE PARITARIO ESPEZIFIKOAK:

- Esku hartze soziala:
 - Hizkuntza-normalkuntzako batzordea (Euskara Batzordea)
 - Lanbideen sailkapena aztertzeke batzordea
 - Ratioak eta lan-karga aztertzeke batzordea
 - Erretiro-adinetik hurbil dauden langileei (erretiroa, erretiro aurreratua eta 55 urtetik gorakoak) zuzendutako antolamendu-neurriak aztertzeke batzordea
- Kale-garbiketa publikoa eta hiru-hondakin solidoen bilketa:
 - Langileen kategoriak ezartzeko batzordea


APLIKATZEKO HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK

2009. urteaz geroztik, Lan Harremanen Kontseiluaren webgunean, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa bakoitzean, edo hala badagokio, lantoki bakoitzean, aplikatzeko hitzarmen sektorialari buruzko kontsulta-zerbitzua dago eskura. Informazio hori ez da loteslea, hau da, ez da legezkoa, eta aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa zehazteko laguntza teknikoa ematea du helburu bakartzat.

Zerbitzua martxan jarri zenetik, goranzko joera ikusten da aurkeztutako eskaeren kopuruan, eta 2021ean maximora iritsi zen (281 kontsulta), pandemiaren agerpenak eragindako jarduera-moteltzearen ondorioz 2020an izandako beherakadaren ondoren. Bada, 2021etik aurrera, beheranzko joera hartu du aurkeztutako eskabideen kopuruak, eta 2025ean, guztira, 151 izan dira.

Adierazi behar da, aurkeztutako kontsulten kopurua murriztu bada ere, jasotzen diren eskaerak gero eta konplexuagoak direla, eta, beraz, eskabide bakoitza sakon aztertu behar dela. Bertan, enpresaren jarduera nagusiaz eta aplikatu daitezkeen hitzarmenen eremu funtzionalez gain, «Comisión Nacional de Convenios Colectivos» delakoak emandako irizpenak ere aztertzen dira.

APLIKATZEKO HITZARMENARI BURUZKO KONTSULTAK (2009-2025)



7. PRECO, GATAZKAK KONPONTZEKO PROZEDURAK

1991z geroztik, eta PRECO Lanbide Arteko II. Akordioaren 1990eko sinaduraren ondorioz, lortutako ondorengo akordioek sortutako gatazkak konpontzeko prozedurak etengabe kudeatu dira gaur egun arte, eta horietako azkena PRECO Lan Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurei buruzko Lanbide arteko Akordioa da (66. zenbakiko EHAA, 2000ko apirilaren 4koa), 2000ko otsailaren 16an Euskal Autonomia Erkidegoko ordezkartzarrik handieneko sindikatu eta enpresaburu konfederazio guztiek sinatu zutena.

2025ean, Lan Harremanen Kontseiluak, bere hiru lurralde-zerbitzuen bidez, PRECO Akordio honen prozedurak izapidetzen jarraitu du, eta, jarraian, haren kudeaketari buruzko datuak azalduko dira, bi parametro bereizi eta osagarritan oinarrituta. Alde batetik, 2025ean eskatutako prozedurei buruzko informazioa bildu dugu, eta zifra aurreko zortzi urteetakoarekin konparatzen da, aldi horretan PRECOren bitartez bideratutako lan-gatazken bilakaeraren ikuspegia eskaintzeko. Eta, bestetik, urtean amaitutako prozedurei buruzko informazioa jaso dugu, haren kudeaketa eta emaitzak aztertzeko; eta aurreko urteetan amaitutako prozeduren azterketa konparatiboa ere egin da.

AURKEZTUTAKO ESKAERAK

GATAZKA KOLEKTIBOAK

Termino absolutuetan, grafikoan erakusten da 2025ean gatazka kolektiboko prozeduren eskaerak 504 izan zirela. Zifra hori 500 prozeduratik gorakoa da, 2020an (590), 2021ean (576), 2022an (525), 2023an (645) eta 2024an (599) bezalaxe.

Ehunekotan adierazita, 2025ean **aurkeztutako eskaeren kopurua** %15,9 murriztu zen, 2024an izapidetutako 599 eskaeren aldean. Datu horrek 2014tik memorieta adierazitako normaltasunerako joera berresten du; izan ere, 2000n, Preco azken akordioa sinatuta, adiskidetzearen edo bide judizialaren aurreko bitartekotzaren izapide esklusiboa egin zenetik, urtez urte izapidetutako gatazka kolektiboko eskaerak 400-600 inguruan mantendu dira.

2008an hasitako krisi ekonomikoaren eta 2011. eta 2012. urteetako lan-erreformen garaian nabarmen handitu ziren gatazka kolektiboen eskaerak. 2013an, 1.349 gatazka izan ziren, sektore publikoan 2012ko abenduko aparteko ordainsaria kentzeagatik eta, batez ere, hitzarmen kolektibo kopuru handi baten aurreraeraginaren amaieragatik egindako erreklamazioengatik. Horren ondorioz, enpresa askok horren guztiaren inguruan beren langileei egindako komunikazioak masiboki aurkaratu ziren.

Orduz geroztik normaltasunera itzultzen joan gara, hiru ekitalditan 600 gatazka zenbatu zirelako, gutxi gorabehera. 2017tik 2019ra bitartean, askoz maila apalagoak izan ziren, 500 eskaera inguru, baina 2013aren aurreko urteetan baino gehiago. Hala ere, joera hori eten egin zen

2020., 2021. eta 2022. urteetan. Ekitaldi horietan, beste krisi batek, kasu honetan osasun- eta ekonomia-krisiak, eskatutako prozeduren kopurua berriz ere handitzea eragin zuen (500-600 bitartean). Igoera hori areagotu egin zen 2023an, eskaeren bolumena 645ekoa izan baitzen; 2024an, aldiz, aurreko urteetako tartean kokatu ziren berrirori (500-600), eta 2025ean eskaerak tarte horretan mantendu dira.

Ohikoa denez, aldakuntza hori, 2024ko datuekin alderatuta, oso desberdina izan da Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan. Horrela, izapidetutako prozeduren kopurua %21 jaitsi da Araban (143) eta %24 Bizkaian (196), eta Gipuzkoan, berriz, %3,1 igo da kopuru hori (165 prozedura).

Bada, eragindako **langileen kopuruari dagokionez**, 2025ean 854.335 izan ziren guztira, eta 2024an, 151.532. Horrek esan nahi du aurreko urtean baino %463,8 gehiago izan zirela, eta horren arrazoia da ekitaldi horretan EAerako gutxieneko soldatari buruzko lanbide arteko akordio bat sustatzeari buruzko espedientea izapidetu zela, 665.100 langileri eragiten ziena.

Gipuzkoan gora egin dute, bai eragindako langileen kopuruak (+2.681), bai aurkeztutako eskaeren kopuruak (+5). Araban, aldiz, gora egin du eraginpeko langileen kopuruak (+20.672), nahiz eta eskaeren kopuruak behera egin duen (-38). Ildo horretatik, Bizkaian handitu egin da eraginpeko langileen kopurua (+679.450 langile, horietatik 665.100 EAerako gutxieneko soldata bati buruzko espedientearekin bat datozenak), nahiz eta eskaeren kopuruak behera egin duen (-62).

AURKEZTUTAKO GATAZKA ESKAERAK (2018-2025)

2018  476

2019  464

2020  590

2021  576

2022  525

2023  645

2024  599

2025  504

Gatazken **eremu funtzionalari** dagokionez, 2025ean izapidetutako eskaera ia guztiak enpresa-koak izan dira, ohi den bezala. Zehazki, 2025ean, sektore-eremuko 16 eskaera baino ez dira aurkeztu. Gainerako eskaerak (488) enpresa-eremuko gatazka kolektiboei buruzkoak dira: %7,6 sektore publikoko enpresa eta erakundeetan aurkeztu dira, eta gainerakoak (%92,4), sektore pribatuko enpresetan.

Sektore ekonomikoei dagokienez, 2025ean, zerbitzuen sektoreak nagusi izaten jarraitzen du industria-sektorearen aurrean. Zehazki, industria-sektoreko gatazkek aurkeztutako prozedura guztien %30 izan dira (151 eskaera), eta zerbitzu-sektoreari dagozkion eskaerak, berriz, guztizkoaren %66,9 izan dira 2025ean (337 eskaera). Eraikuntzaren sektorean, aldiz, izapidetutako espedienteen %2 baino ez dira aktibatu (10 eskaera).

Analisiaren ikuspegi horretatik, komeni da gogoratzeari 2006. urte horretatik aurrera industria-gatazkek pixkanaka gainbehera etorri zirela, eta zerbitzu-sektorean, aldiz, gorakada nabaria izan zela; 2009. urtean inflexion-puntua gertatu zen, izan ere, industria-sektoreko prozedurak jada %50etik beherako ehunekoetan kokatu ziren (%45,4 ziren, zehazki), eta zerbitzuen sektorearekin lotutako eskaerak, berriz, %52,9 izan ziren. Bada, joera hori ez da inoiz aldatu; aitzitik, sendotuz joan da, eta 2025. urtean antze-man da alderik handiena, adierazitako ehunekoekin. Arrazoizkoa da pentsatzea joera hori EAEko ekoizpen-sarearen osaeraren beraren bilakaerari lotuta dagoela.

Eskaerak sektorearen esparru ekonomikoaren arabera aurkeztearen bilakaeraren azterketa horrek, 2024an gertatu zen bezala, lotura zuzena du 2025ean Lan Agintaritzaren aurrean 2025eko azarora arte erregistratutako greba-kopuruaren bidez adierazitako lan-gatazkekin (txosten hau egin den

PROZEDURA-ESKAEREN BILAKAERA, LURRALDE HISTORIKOEN ARABERA (2018-2025)

		2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	2025
EAE	PROZEDURA-KOPURUA	476	464	590	576	525	645	599	504
	ERAGINPEKO LANGILEAK	114.190	117.988	230.501	259.609	106.709	142.824	151.532	854.335
ARABA	PROZEDURA-KOPURUA	109	131	159	146	117	181	181	143
	ERAGINPEKO LANGILEAK	55.872	40.620	113.007	44.197	28.983	55.929	51.882	72.554
BIZKAIA	PROZEDURA-KOPURUA	253	232	334	288	245	311	258	196
	ERAGINPEKO LANGILEAK	46.230	62.160	105.668	178.511	50.014	70.835	80.176	759.626
GIPUZKOA	PROZEDURA-KOPURUA	114	101	97	142	163	153	160	165
	ERAGINPEKO LANGILEAK	12.088	15.208	11.826	36.901	27.712	16.060	19.474	22.155

egunean eskuragarri dagoen azken datua). Hala, egindako greben %60,4 zerbitzuen sektorean metatu ziren; industrian, berriz, greben %37,4 egin ziren, eta eraikuntza-sektoreko greba-egunen eragina oso txikia izan zen (%2,1). Hala ere, 2021ean eta 2022an joera alderantzizkoa izan zen, izan ere, industria-sektoreko greba-egunak askoz gehiago izan ziren zerbitzuen sektorekoak baino: 2022an, guztizkoaren %80,7 eta %18,7, hurrenez hurren.

2023an ez bezala, joan den urtean esanguratsua izan da PRECOren bidez bideratutako lan-gatazkek %7,1 jaitsi direla, eta eraginpeko langileak %33,8; eta, aurrez adierazi den bezala, EAEn egindako greben kopurua nabarmen jaitsi da (-%20,62), baita eragindako langileena ere (-%49,5).

Gatazka-motei erreparatuz gero, prozeduren xede nagusia enpresaren erabakiari edo praktikiari dagozkien gatazkek dira oraindik ere; horien bidez, enpresak hartutako neurriak (era askota-

koak) aurkaratzen dira. Gatazka horiek prozedura guztien %50en gainetik egon dira historikoki, eta 2025ean %61,5era iritsi ziren (310 eskaera); ehunekotan, beraz, 2,1 puntu gutxiago, 2024ko prozeduren datuekin alderatuta. Informazio hori oinarri hartuta, ondoriozta daiteke Precoren prozedura-mota nagusia enpresen zuzendaritzaren antolamendu-ahalmenak baliatzean sortzen diren desadostasunei buruzkoa dela. Informazio hori oinarri hartuta, ondorioztatzen da PRECO prozedura mota nagusia enpresetako zuzendaritzaren antolakuntza-ahalmenen inguruan sortzen diren desadostasunetan oinarritzen dela.

2025ean, antzeko ehunekoetan mantendu dira arauak eta itun edo hitzarmen kolektiboak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko gatazkak (%26); zehazki, 156 prozedura 2024an, eta 131, aldiz, 2025ean). Ohikoa denez, horrelako gatazka gehienak hitzarmen kolektiboak eta enpresa-akordioak interpretatzeari edo betetzeari buruzko desadostasunak izan dira (125), eta oso gutxi izan dira lege-arauak interpretatzeari edo aplikatzeari buruzko eskaerak (2).


2025ean gorakada txiki bat izan da PRECO prozeduraren mendeko negoziazio-gatazka kolektiboen kopuruan. Zehazki, gatazka mota horren 51 eskaera aurkeztu ziren, hau da, eskaera guztien %10,1 (2024an %8,3 izan ziren).

Gainerako gatazkak honela banakatzen dira: enpresa bateko erakunde sindikal jakin bateko afiliazio-portzentajea egiaztatzeko 9 eskaera (PRECO-ren aplikazio-arauetan onartutako aukera, zenbait hitzarmen kolektibotan aurreikusitako eskubide sindikalak gauzatzeko ziurtapen-beharrei erantzuteko), eta beste 3 eskaera, hitzarmen kolektiboe-tako batzorde parietarioetan egondako desadostasunek eraginda.

Bestalde, 2025ean aurkeztutako **gatazken tipologia** aztertzen hasita, bi gogoeta nagusi egin behar dira. Lehenik eta behin, 2025 urtean, abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren bidez egindako lan-erreforma onartzearekin lotutako eskaera gehiago aurkeztu ziren, zehazki, hitzarmen kolektiboak aplikatzeko lehentasuna arautzeari eta enpresa-kontratazioko praktikak erregulazio berrira egokitzeari dagokienez, 2022an, 2023an eta 2024an gertatu zen bezala. Bigarrenik, aipatu behar da ekainaren 28ko 5/2023 Errege Lege Dekretuaren bidez familia-bizitza eta gurasoen eta zaintzaileen bizitza profesionala kontziliatzeko edo bateragarri egiteko neurri berriak onartu ondoren, 2025ean baimenekin eta lizentziekin lotutako eskaera ugari aurkeztu direla, eta, zehazkiago, aipatutako lege-erreforma enpresa- eta sektore-esparruko hitzarmen kolektiboetan baimenen eta lizentzien arauketa egokitzeko moduari buruzkoak.

Eta baieztatu daiteke 2025 urtean aurreko urteetan ere nabari zen joera bat finkatu da, alderdiek interes-gatazkak konpontzeko prozeduretan (hau da, negoziazio kolektiboaren blokeo-egoerkin lotutakoetan) jarritako konfiantzari dagokionez. Zehazki, negoziazio kolektiboko prozesuekin lotutako 51 prozedura izapidetu dira enpresa- edo lantoki-mailan (2024an 9 izan ziren). Beste 9 eskaera ere aurkeztu dira grebarako eskubideari lotuta, zentzu zabalean, nahiz eta eskaera horietako batzuk enpresako hitzarmen kolektiboetan itundutako greba-deklarazioaren aurreko izapidea betetzearen ondorio zen. Dena dela, 2025ean nabarmen murriztu da grebarako eskubidearekin lotuta aurkeztutako eskaeren kopurua, datu hori alderatzen baldin badugu eskubide horri lotuta 2024an aurkeztutako 36 eskaerekin.

ESKATUTAKO PROZEDUREN BILAKAERA, EHUNEKOTAN, SEKTORE EKONOMIKOEN ARABERA (2018-2025)



Adiskidetze-topaketak egiteko modalitateari dagokionez, 2025ean behin betiko finkatu da aurrez aurreko bileren aldeko hautua (joera hori 2021ean hasi zen). Modalitate horrekin batera, formatu telematikoan soilik egindako adiskidetze-topaketak ere egin dira, nahiz eta gutxiago diren, eta formatu mistokoak ere bai, alegia, aldi berean modu presentzialean eta telematikoan oinarrituta egindako adiskidetze-topaketak. Beterie prozeduretan inplikaturako alderdiek egindako eskaeren arabera egiten dira topaketak era batera edo bestera.

BANAKAKO GATAZKAK

PRECO borondatezko prozedurei buruzko Lan-bide Arteko Akordioaren 6. artikulua babesean, PRECOren Batzorde Paritarioak hitzarmen kolektiboetan ezarritako bereizgarri jakin batzuk onartu zituen; izan ere, PRECOra bideratzen zituzten banakako gatazkak.

Hala ere, bide hau gutxitan erabili izan da beti. Izan ere, azken hamahiru urteetan banakako gatazken 54 espediente soilik izapidetu dira Lan Harremanen Kontseiluan (horietako 6, 2025ean).

GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK KUDEATZEA

PROZEDURAK, AMAITZEN DIREN FASEAREN EDO UNEAREN ARABERA


PRECOren prozeduretan bi fase bereizten dira; hasierako fasea deitutakoan, Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek adiskidetzea helburu duen topaketa bat antolatzen dute, prozeduren kudeaketa eta sustapenez arduratuz, eta bigarreanean, bi alderdiek ados jarrita aukeratutako kanpo profesional baten laguntzarekin gauzatzen da prozedura. Lehen fasean adostasunik lortzen ez denean ekiten zaio bigarren faseari, eta kasu gehienetan, gatazkaren alderdi bakoitzaren gehiengoak nahi duen guztietan, salbuespen puntualak izan ezik, horiek

aukera ematen baitute bitartekaritzari ekiteko alderdietako bakar batek eskatuta.

Hala eta guztiz ere, Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek jarraitzeko joera sendotzen ari da, eta ez da profesional batengana jotzeko beharrik izaten akordio bat lortzen ahalegintzeko.

Horren guztiaren ondorioz, 2025ean ere bi alderdiek oso gutxitan onartu dute profesional batekiko prozedura baten eraginpean jartzea. Hala, berretsi egin da azken zortzi urteetan prozedura hasi eta amaitzeko joera, hain zuzen ere, Kontseiluko teknikarien eskuhartze bakarraren bidez, adiskidetze-saioaren moderazio-eginkizunetan. Izan ere, adiskidetze-saioa, gero eta maizago, paraleloki, zenbait bileratan luzatu eta garatzen da, non gatazkaren aldeek hasierako jarrerak moldatzen baitituzte.

PROZEDURAK, AMAIERAKO FASEAREN ARABERA (2018-2025)



Izan ere, 2012ko lan-erreforma indarrean sartu arte, hasierako fasean (adostasunarekin edo adostasunik gabe) amaitzen zen kasuen batez besteko banaketa edo profesional batekin jarraitzen zuen kasuen banaketa %75,9koa eta %24,1koa zen, hurrenez hurren. 2013. urtean, hitzarmen kolektiboen aurreraeragina amaitu osteko gatazken ondoriozko eskaera kopuru handia zela eta, hasierako fasean bakarrik garatutako prozedurei dagokien ehunekoa %95,6ra igo zen. Bada, 2013. urtean izan zen salbuespena gaindituta, profesionalak parte hartu zuen prozeduren ehunekoa berreskuratu zen hein batean, baina ez, inondik ere, urte horren aurreko balioetan.

Aldi berean, ordutik aurrera aldeek interes handiagoa agertu zuten LHKko teknikarien laguntzarekin lanean jarraitzeko. Testuinguru horretan, 2017tik 2024ra bitartean, profesionalen esku-hartzea hasitako prozeduren %10,5 eta %4,5 arteko tartean kokatu da, eta 2025ean %3,5era murriztu da; izan ere, urtean amaitutako 520 espedienteetatik, guztira 18 espedientetan eskatu da profesional baten esku-hartzea.

Datu azpimarragarri gisa, esan behar da, hiru lurralde-egoitzetan eragin oso desberdina izan duten arren, 2025ean oreka egon dela hiru egoitzetan profesionalen esku-hartzearekin amaitutako espedientei dagokienez. Izan ere, Araban 4 prozedura garatu dira (162tik), Gipuzkoan 6 (167tik), eta Bizkaian 8 (191etik); eta Bizkaiko datuan sartu da 2025ean Euskal Autonomia Erkidego osoan egindako arbitraje bakarra.

GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDUREN EMAITZA. TERMINO OROKORRETAN

Kopuru hori 2025eko abenikoak urte horretan amaitutako eskabide guztiekin alderatzearen emaitza da. Benetan izapidetutako eskabide guztiekin alderatuz gero (atzera egindakoak eta izapidetzea ez onartzeagatik nahiz kontrako alderdiak ez agertzeagatik artxibatutakoak kenduta), konpondutakoen ehunekoa, errealitatetik hurbilen dagoena, %24,7koa litzateke.

Gatazka konpontzeari dagokionez, ehunekotan adierazita, hiru lurralde-egoitzetan aldeak handiak izan dira 2025 urtean ere. Lurralde historiko guztietan akordioarekin amaitutako prozeduren ehunekoa pixka bat igo bada ere, adostasunarekin edo laudoarekin amaitu dira prozeduren %24,1 Araban (2024an %23,8 izan ziren), prozeduren %16,8 Bizkaian (2024an, %16,2) eta prozeduren %26,9 Gipuzkoan (2024an, % 24,8).

PROZEDUREN EMAITZA, TERMINO OROKORRETAN (2018-2025)

AMAITUTA 2018 **508**

 120 KONPONDUTA · %23,6

388 KONPONDU GABE · %76,3

AMAITUTA 2019 **490**

 130 KONPONDUTA · %26,5

360 KONPONDU GABE · %73,5

AMAITUTA 2020 **545**

 102 KONPONDUTA · %18,7

443 KONPONDU GABE · %81,3

AMAITUTA 2021 **608**

 132 KONPONDUTA · %21,7

476 KONPONDU GABE · %72,3

AMAITUTA 2022 **508**

 136 KONPONDUTA · %26,8

372 KONPONDU GABE · %73,2

AMAITUTA 2023 **660**

 163 KONPONDUTA · %24,7

497 KONPONDU GABE · %75,3

AMAITUTA 2024 **601**

 124 KONPONDUTA · %20,6

477 KONPONDU GABE · %79,4

AMAITUTA 2025 **520**

 116 KONPONDUTA · %22,3

404 KONPONDU GABE · %77,7

PROZEDUREN EMAITZA GATAZKA MOTAREN ARABERA


Azaldutako datu orokorrak gatazka kolektiboaren tipologiaren arabera banakatuta, ondorioztatzen da negoziazio kolektiboko gatazketan lortutako akordioaren ehunekoa amaitutako tipologia horretako prozedura guztien %52 dela (52tik 27, hain zuzen ere). Hala ere, hitzarmen kolektiboa edo legezko araudia interpretatzeko edo aplikatzeko gatazka juridiko hutsetan, alderdiek auzibidera jotzearen alde egiten dute gehienbat, nahitaezko aurretiazko adiskidetze-fasea amaitu ondoren (132 eskaera amaituta eta %12ko adostasuna).

HASIERAKO FASEAN AMAITUTAKO GATAZKA KOLEKTIBOEN PROZEDURAK

Printzipioz eskaera guztiak fase honetatik igarotzen dira. Adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje bateranzko bitarteko fasea izan behar zuen hasiera batean, baina azken fasea ere izan daiteke, bi alderdietako batek onartzen ez badu profesionalaren esku-hartzea dakarren prozedura bati hasiera ematea.

Kasu horretan jarduna adostasunarekin amai daiteke, baldin eta Lan Harremanen Kontseiluko teknikariek lortzen badute alderdiak adostasun horretara iristea haiekin egiten dituzten bileretan, edo adostasunik gabe, alderdiek akordiorik lortzen ez badute.


Hurrengo grafikoan, fase honetan adiskidetze- edo bitartekotza-prozedura profesionalarekin hasi gabe amaitu diren 2025eko eskaerei buruzko datuak ageri dira. Termino absolututan, fase horretan 502 prozedura amaitu dira guztira, hau da,



2025ean amaitutako 520 eskaeren %96,5; bada, horrek 2013an hasitako ildo historikoa (aurrez aipatu dena) berresten du.

2025 urtean, grafikoan adierazten den bezala, hasierako fasean amaitu ziren gatazka kolektiboaren artean (502, guztira) alderdien arteko akordioarekin amaitu ziren %21,1 (106). Horrek esan nahi du, ehunekotan adierazita, 2024. urtearekin alderatuz (%18,7) 3,1 puntu jaitsi direla.

Halaber, datu positibo gisa, azpimarratu behar da hasierako fasean amaitu ziren prozeduren ia laurdenak Gipuzkoan (%23,9) eta Araban (%22,8) lurralde-egoitzen arduradunen aurrean sinatutako akordioarekin amaitu zirela, PRECOko profesionalen esku-hartzerik gabe.



GATAZKA KOLEKTIBOAK KONPONTZEKO PROZEDURAK, PROFESIONALAREKIN

Aurrez aipatu denez, gutxi dira hasierako fasean konpondu ez eta, aldeek adostuta aukeratutako kanpoko profesionalarekin, adiskidetze, bitartekaritza edo arbitraje moduan jarraitzen duten prozedurak. Zehazki, 2025ean soilik 18 espediente izan dira: 8 adiskidetze, 9 bitartekaritza eta arbitraje 1. Ehunekotan, prozedura horiek 2025ean amaitu-tako guztien %3,5 izan ziren.

Prozedura horien emaitzari dagokionez, 2025ean adostasunarekin amaitutako adiskidetzeen eta bitartekaritzen ehuneko bateratua fase horietan ebatzitako 17 prozeduren %70,5 (12 prozedura) izan zen, eta urte horretan Preco Akordioaren esparruan lortutako 116 akordioen %10,3). Horiei urtean amaitutako arbitraje-prozeduran emandako laudoa gehitu beharko litzaieke

ADISKIDETZEAK

Adiskidetzea PRECOk erabilitako prozeduretako bat da; prozedura horretan, profesional batek alderdiei beren gatazkari irtenbide zuzen bat lortzen laguntzen die abeniko baten bidez.

2025ean, guztira, 8 adiskidetze-prozedura amaitu dira alderdien artean adostuta izendatutako profesionalarekin (amaitutako prozeduren %1,5).

Ondorengo grafikoan, adiskidetze horiek azken urteetan amaitzeko moduak aurkezten dira. Profesional baten bidezko adiskidetzearen eraginkortasuna oso handia izan da urte honetan ere, serie historiko osoan bezala; izan ere, 7 adostasun lortu dira, hots, 2025ean amaitutako adiskidetze guztien %87,5.

ADISKIDETZEAK AMAITZEKO MODUA (2018-2025)



Adiskidetzea da, era berean, afiliazioa egiaztatze prozeduraren forma. Prozedura horretan, alderdiek alde aurretik onartzen dute izendatzen duten profesionalak emango duen ziurtagiria, eta, beraz, adostasunarekin amaitzen da, betiere bi alderdiek aho batez onartzen baldin badute prozedura hori. 2025ean, sindikatu-afiliazioa egiaztatze prozeduren garrantzi erlatiboa nabarmen handitu da profesionalarekin amaitutako prozedu-

ren guztizkoaren barruan, 2024arekin alderatuta; izan ere, zehazki, 2024an 23 prozeduretatik 7 ziren, eta 2025ean, aldiz, 8 prozeduretatik 6 izan dira. Espediente mota horretatik, 4 Gipuzkoan izapidetu dira, eta 2 Araban, eta Bizkaian 2025ean ez da horrelako espedienterik izapidetu.

Bestalde, adiskidetze-prozeduretatik afiliazioa egiaztatzeari buruzkoak kenduz gero, aurrez ai-

patu den %87,5eko eraginkortasuna %50ekoa izatera igaroko litzateke (izapidetutako 2 prozeduretatik 1 bakarrik amaitu zen adostasunez), gatazka juridikoei edo negoziazio-gatazkei buruzko adiskidetze-prozedura batean akordio bat lortzea zailagoa delako, sindikatu-afiliazioaren maila egiaztatzeari buruzko beste prozedura batzuekin alderatuta.

BITARTEKARITZAK

Bitartekaritza PRECOren beste prozedura bat da; horretan, profesionalak alderdien arteko akordio zuzenik lortu ez duenean, bi alderdiek onar edo bazter dezaketen proposamen idatzi bat formulatuz amaitzen du bere jarduna.

Bada, 2025. urtean, 9 bitartekaritza-prozedura amaitu ziren (profesionalek esku-hartu zuten prozedura guztien %50): alderdiek onartu ez zituzten 3 proposamen, 3 adostasun, 2 desadostasun eta 2 atzera egite.

2025  9

2024  10

2023  3

2022  4




2021  9

2020  7

2019  6

2018  9

BITARTEKARITZAK AMAITZEKO MODUA (2018-2025)

-  Adostasunez
-  Adostasunik gabe
-  Atzera egiteak eta beste batzuk

ARBITRAJEAK


Arbitrajean, azkenik, aurrez profesionalak eman-dako laudoa onartu behar dute alderdiek. Beraz, horrelakoetan ezinezkoa da adostasunik eza gertatzea.

Bada, 2025ean, arbitraje bakarra garatu da.

2025EKO KUDEAKETAREN LABURPENA

2025ean 520 prozedura amaitu dira (horietako batzuk aurreko urteetan hasitakoak ziren), hau da, ehunekotan adierazita, %13,8 gutxiago 2024koen aldean, orduan 601 izan baitziren. Guztira, 116 eskaeratan lortu zen gatazkari konponbidea ematea, hau da, amaitutako prozedura guztien %22,3an; 1,7 puntuko igoera, beraz, ehunekotan adierazita, aurreko urtearen aldean (orduan %20,7koa izan baitzen). Hala ere, aurrez esan dugunez, adostasunarekin amaitutako prozedurak %24,7 izango lirateke, baldin eta beste aldea ez agertzeagatik, atzera egiteagatik edo tramitera ez onartzeagatik izapidetu ezin izan ziren eskaerak deskontatzen badira.

Bestalde, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako 18 prozeduretan (arbitrajea barne) izandako desadostasunen ehunekoa %72,2koa da, eta horrek bide horien eraginkortasuna berresten du, bi alderdiek hori egitea onartzen dutenean. Hala ere, profesional baten esku-hartzearekin aurrera eramandako prozeduretan (arbitrajeak barne) izandako desadostasunen ehunekoa %19,3 hazi da 2024ko datuekin alderatuta (%52,9ko adostasun-ehunekoa orduan), eta gorakada hori, neurri batean, sindikatu-afiliazioa egiaztatzeke prozedurek kontziliazio-prozedura guztien barruan duten pisu konparatibo handiagoaren ondorio da.



Banakako gatazkei dagokienez, haien bolumena oso txikia da, izan ere, 2025ean halako 6 espediente baino ez daude, denak Araban izapidetuak eta adostasunik gabe amaitutakoak.

PRECOKO BATZORDE PARITARIOAREN JARDUERA 2025EAN

PRECOn Batzorde Paritarioa PRECO Lanbide arteko Akordioaren bidez sortu zen, hura interpretatzeko eta aplikazio-arauak lantzeko. Eta batzorde hori Lan Harremanen Kontseiluaren barruan aritzen da, erakundearen zuzendaritzaren eta kudeaketa-taldearen laguntzarekin.

2025. urtean behin bildu da, urtarrilaren 16an, 2024. urteko PRECO prozeduren datuak aztertzeko.

8. ESTATUTUAREN ARABERAKO HITZARMEN KOLEKTIBOAK EZ APLIKATZEKO PROZEDURAK EBAZTEKO ORGANOA-ORPRICCE

Abenduaren 30eko 471/2013 Dekretuaren bidez sortu zen gure Autonomia Erkidegoan hitzarmen kolektiboak ez aplikatzeari buruzko desadostasunak ebazteko eskumena —Langileen Estatutuaren 82.3 artikuluan ezarritakoa— duen erakunde publikoa. Estatuan, eskumen hori «Comisión Consultiva Nacional de Convenios Colectivos» delakoari dagokio.

ORPRICCEk hiruko izaera du, eta honako hauek osatzen dute: Autonomia Erkidegoko Administrazioiko bost ordezkari, Confedebako (enpresaburu konfederazio adierazgarriena) bost ordezkari eta sindikatu konfederazio adierazgarrietariko beste bost ordezkari (nahiz eta bost postu horietako bat hutsik geratu den, LAB erakundeak titular bat proposatzeko eskubideari uko egin diolako).

Organo hau eratu zuen Dekretuak Lan Harremanen Kontseiluan ezarri zion egoitza, eta haren eskumenak gauzatzeko behar dituen baliabideak LHKk berak ematea xedatu zuen. Horregatik ematen dugu haren sorreraren eta jardueraren berri, nahiz eta lege arautzaileak ematen dizkion eskumenen artean ez egon.

Organo honen jarduna haren kideek 2014ko martxoaren 13an egindako eraketa bilkuran kargua hartu zutenean hasi zen. 2014an hitzarmen kolektiboa ez aplikatzeari buruzko desadostasuna ebazteko bi eskaera aurkeztu ziren. Horietako bat atzera bota zen aurkeztu eta zenbait egunetara, eta besteak arbitraje prozedura eragin zuen.

2015ean, bi eskabide aurkeztu ziren, eta beste bat 2016an; guztiak amaitu ziren arbitraje-laudoa emanda. 2017-2025 aldian ez da eskaerarik izapidetu, 2019an aurkeztu zen bat salbu, eta hura enpresak atzera eginda amaitu zen, alderdiak ados jarri baitziren amaitu aurretik.

9. AZTERLANAK ETA ARGITALPENAK

Lan Harremanen Kontseiluak, bere Lege erregulaztzailean ezarritakoari jarraiki, irizpenak, ebazpenak, txostenak edo azterlanak lantzen ditu, nola eskumeneko instantzien eskaerei

Lan Harremanen Kontseiluaren lanaren ardatz nagusia negoziazio kolektiboa aztertzea da. Hala ere, negoziazio kolektiboaren bilakaera hobeto ulertzen denez gure inguruko ekonomia- eta lan-egoera kontuan hartuz gero, LHKren txostenetan beti sartzen da aldagai sozioekonomiko esanguratsuenei buruzko informazioa.

HIRU HILEAN BEHINGO INFORMAZIO SOZIOLABORALA

Euskal Autonomía Erkidegoko errealitate soziorabialaren azterketaren lehen maila hiru hilean behingo «*Informazio soziorabiala*» argitalpenean jasotzen da. 2025ean formatua eta aldizkakotasuna aldatu dira, eta bi hilean behingo argitalpena izatetik hiru hilean behin argitaratzera igaro da.

Txosten honetan, EAEko hitzarmen kolektiboen berritzearen jarraipena egiten da, eta negoziazio horrek urtean zehar metatutako emaitza nagusien berri ematen da, betiere bestelako informazio soziorabialaren testuinguruan.

Txostenak hasierako laburpen-taula bat du, iruzkin labur batekin, eta beste hainbat taula eta grafiko ere bai, egoera ekonomikoari, lan-merkatuari, negoziazio kolektiboari, lan-gatazkei, enplegu-

erregulazioko espedientei eta laneko ezbeharrei buruzko datuak biltzen dituztenak. Guztira, lau txosten egi dira 2025ean.

URTEKO TXOSTEN SOZIOLABORALA

Jarraipen soziorabialerako plan hau urteko txosten soziorabialak burutzen du. Urteko txosten honetan, ekitaldiari buruzko azterketa osatuagoa eta hausnarketa kualitatiboagoa eta zehatzagoa egiten dira. 2025. urtean, bada, 2024. urteari dagokion txostena argitaratu zuen LHKk, honako izenburu honekin: «*EAEko Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak 2024an*».

Errealitate soziorabiala aztertu eta jarraitzeko zeregin hori guztia egiteko, Lan Harremanen Kontseiluak askotariko estatistika informazio garrantzitsuak aztertzen ditu, eta aldagai eta adierazleen hautaketa zehatza egiten du. Gainera, bere datu base propio bat landu eta prozesatzen du, bertan biltzen duelarik EAEko negoziazio kolektiboari buruz dagoen informazio guztia, edo beste eremu batzuetan garatu arren, gure Autonomia Erkidegoan eragina duena.

Lan Harremanen Kontseiluak egiten dituen txosten guztiak, urtekoak zein bestelakoak, gure webgunean kontsulta daitezke.

NEGOIZAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURA EAE-N

Urte birik behin, Lan Harremanen Kontseiluak negoziazio kolektiboaren egiturari buruzko informazioa eguneratzen du, hau da, EAEen ezartzen diren hitzarmen kolektiboen bilduma egiten du, eta haien eraginpeko langileak zein diren zehazten du.

Azken azterlana 2025ean egin da, hitzarmen kolektiboek eragindako langileak sexuaren arabera banakatuta. Azterlana egiteko, aurreko kasuetan bezala, Gizarte Segurantzak 2025eko martxoaren 31n emandako informazioa hartu da oinarritzat.

Lortutako emaitzekin, 2026aren hasieran negoziazio kolektiboaren egitura eguneratuko da, eta txostenak egiteko oinarritzat hartzen den LHKren datu-basea aldatuko da.


NEGOIZAZIO KOLEKTIBOARI BURUZKO INFORMAZIOAREN KUDEAKETA ESTATISTIKORAKO DATU-BASE BERRIA

2025. urtearen hasieran ezarri zen negoziazio kolektiboaren bilakaeraren azterketa estatistikoa egiteko garatutako aplikazio berria.

HAINBAT KONTSULTA NEGOZIAZIO KOLEKTIBOAREN EGITURARI BURUZ

2025. urtean ere gizarte-eragileen eta negozio-eragileen eskaerak jaso ziren azterlanen zerbitzuan, informazio eske, Negoziazio Kolektiboaren Egiturari buruzko gure Azterlanaren arabera hainbat hitzarmenen eremu funtzionalean sartuta dauden enpresen eta langileen kopuruari buruz. Mota horretako 37 kontsulta egin eta erantzun ziren, gu-txi gorabehera.

Lurralde historikoen arabera, 64 kontsulta egin ziren jakiteko zer hitzarmen aplikatu behar zitzaion lantoki bat Bizkaian duen enpresa bati; halako 58 egin ziren Gipuzkoan, eta 29 Araban.



10. AURREKONTUEI BURUZKO INFORMAZIOA

Lan Harremanen Kontseiluak autonomia ekonomiko finantzarioa du Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen barruan, eta, funtsean, aurrekontu horien kargura emandako dirulaguntzen bitartez finantzatzen du bere jarduera.

Bada, Lan Harremanen Kontseiluaren Osoko Bilkurak, 2024ko abenduaren 2ko ohiko saioan, LHKren 2025eko ekitaldirako aurrekontua onartu zuen.

AURREKONTUA 2025

1.	DIRU-SARRERA ARRUNTAK	2.895.853,00 €
	1.1. Transferentzia arruntak	2.873.853,00 €
	1.2. Beste diru-sarrera batzuk	22.000,00 €
2.	GASTU ARRUNTAK	2.872.844,23 €
	2.1. Langile-gastuak	1.425.801,23 €
	2.2. Funtzionamendu-gastuak	1.447.043,00 €
3.	AURREZKI GORDINA (1-2)	23.008,77 €
4.	KAPITALAREN SARRERAK	27.290,00 €
	4.1. Kapital-transferentziak	27.290,00 €
5.	KAPITAL-GASTUAK	120.000,00 €
	5.1. Inbertsio errealak	120.000,00 €
6.	AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)	(69.701,23 €)
7.	FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA	(2.500,00 €)
	7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa)	3.500,00 €
	7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea)	6.000,00 €
8.	SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)	(72.201,23 €)

2025EKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

1. DIRU-SARRERA ARRUNTAK		2.894.561,55 €
1.1. Transferentzia arruntak	2.873.853,00 €	
1.2. Beste diru-sarrera batzuk	20.708,55 €	
2. GASTU ARRUNTAK		2.670.503,06 €
2.1. Langile-gastuak	1.323.214,66 €	
2.2. Funtzionamendu-gastuak	1.347.288,40 €	
3. AURREZKI GORDINA (1-2)		224.058,49 €
4. KAPITALAREN SARRERAK		27.290,00 €
4.1. Kapital-transferentziak	27.290,00 €	
5. KAPITAL-GASTUAK		40.153,18 €
5.1. Inbertsio errealak	40.153,18 €	
6. AHALMENA (+) BEHARRA (-) FINANTZAKETARAKO (3+4-5)		211.195,31 €
7. FINANTZA-AKTIBOEN ALDAKUNTZA GARBIA		(500,00) €
7.1. Aktiboen aldakuntza. Sarrerak (langileen maileguen itzulketa)	500,00 €	
7.2. Aktiboen aldakuntza. Gastuak (langileei maileguak ematea)	0,00 €	
8. SUPERABITA - (AURREKONTU-DEFIZITA) (6+7)		211.695,31 €

(*) Memoria idatzi zen eguna kontuan hartuta, likidazioa behin-behinekoa da.

LAN
HARREMANEN
KONTSEILUA
CONSEJO DE
RELACIONES
LABORALES

